

**DBHko 1-2-3-4 eta BATXILERGOKO 1-2  
HASIKO DUTEN IKASLEEN GURASOEI**

Guraso agurgarriok:

Hurrengo 2018-2019 ikasturtearen hasierari buruzko zehaztasun batzuk eskaini nahi dizkizuegu.

**IKASTURTEAREN HASIERA:**

**Irailaren 6an, osteguna: Ordutegi berezia. Tutoretza berezia.**

DBHko eta Batxilergoko ikasleentzat: 8:50etik 12:45era.

DBHko ikasleek karnet-argazki bana ekarri behar dute atzekaldean beraien izen abizenak idatzita eta boligrafo bat tutoreek emandako oharra apuntatzeko. DBH 3ko ikasleek NAN dokumentuaren fotokopia bat ekarri beharko dute.

Liburuak eskuratzeko egin beharreko ordainketa adieraziko zaie.

Liburukidekoak baldin badira edo liburuak ikastetxean erosi badituzte, ordainketa LA SALLE Ikastetxearen izenean dagoen EUSKADIKO KUTXAKO ES30 30350149441490010571 k/k-aren zenbakian egingo da.

Liburuak jaso ahal izateko ordainketaren ORDAINAGIRIA entregatu behar da.

**Irailaren 7an, ostirala:**

**Liburuak eta apunteak jaso ikastetxean:** "liburukidekoek" beraien geletan. "Liburukiden" parte hartzen ez dutenek bilgunean:

DBHko 1. ikasleentzat (11:30etan) - DBHko 2. ikasleentzat (12:15etan)

DBHko 3. ikasleentzat (11:30etan) - DBHko 4. ikasleentzat (12:15etan)

1. Batxilergoko ikasleentzat: 9:30etan

2. Batxilergoko ikasleentzat: 10:30etan

**Irailaren 10ean, astelehena: Ordutegi normala maila guztietan.**

**IKASTURTEKO ORDUTEGIA:**

**DBHn: Goizez:** 08:50etatik 13:30etara egunero.

**Arratsaldez:** 15:00etatik 16:50etara astelehen, astearte eta ostegunetan.

Asteazken eta ostiraletan ez dago klaserik arratsaldeetan.

**1. BTXn: Ordutegi jarraitua, goizez.**

07:55etatik 14:30etara egunero, ostirala ezik.

Ostiraletan 07:55etatik 13:30etara.

**2. BTXn: Ordutegi jarraitua, goizez.**

07:55etatik 14:30etara egunero, ostirala eta asteazkena ezik.

Asteakeneran eta Ostiraletan 07:55etatik 13:30etara.

<b><u>URTEKO EKARPENA:</u></b>	DBH:	62,50 €
<b>( 10 hilabete)</b>	1. Batxilergoa:	85,50 €
	2. Batxilergoa:	95,50 €

**IKASLEEN GURASO ELKARTEA:** Guraso Elkartearen kuota, familiako 42 euro / urtekoa izango da.

Diru honekin Ikasleen Gurasoen Elkarteak (AMPAK) aurre egiten die ikasturtean zehar suertatzen diren jardueren sortutako gastuei.

Ikasketetarako fondoak: ikasleko 10 euro /urtekoa doako beketarako, etxeko familia-burua hiltzen bada. Bi kuota hauek batera kobratzen dira urrian.

**ESKOLA-JANTOKIA:** Eguneroko bazkaria nahi dutenentzat: 103,75 euro/hileko (5 egun astero) (10 hilabetez). Iraila bukaera, abuztu hasieran formulario bidez izen emango da.

Egun bateko bazkariagatik 7,90 euro. TXARTELA 11:00ak baino lehenago eskuratu beharko da, harreran.

**IKASTETXEAREKIKO HARREMANAK:** Ikastetxeko gai eta bileren berri helbide elektronikoaren bidez jakinaraziko zaizkizue.

**IKASTETXEKO MEMORIA:** Ikastetxeko antolaketa eta hainbat xehetasun pedagogiko biltzen dira bertan. Lehenengo hiruhilabetekoan banatuko zaizue.

**IDAZKARITZAKO ZERBITZUA:** Eskola garaian 8:30tik 13:00ra eta 15:00tik 17:30era.

Begirunez agurtzen zaituztegu eta hemen gaituzue nahi duzuen guztirako

**ZUZENDARITZAK**